


ehbildu



PSE-EE
PSOE

Honako idazkia bihoa bere tramiterako
Pasela
Pase el presente escrito al Negociado de
..... para su trámite

LASARTE-ORIA 2018 JUN: 12

OSPAKIZUN ZIBILAK EGITEKO UDAL ORDENANTZA SORTZEAREN ALDEKO MOZIOA

Estatu akonfesional eta laiko batean erakundeek bermatu behar dute pertsonen eta Komunitateen askatasun ideologikoa, erlijiosoa eta gurtzekoa, muga bakar batekin: ordena eta elkarbizitzaren errespetoa. Era berean, ezaguna da zer nolako aniztasun ideologiko, erlijioso eta kulturala duen gure gizarteak, oro hat, eta Lasarte-Oriak zehazki. Hain zuzen ere, gizartea plurala da eta etenik gabe eraldatzen ari da, bere ohitura eta ekitaldi sozialei dagokienez.

Ospakizun zibilak egitea behar sozial batetik sortzen da: ospakizun duin eta pertsonala eskaintzea erlijiorik gabe bizitzea aukeratu duten herritarrei, pertsonak bizitzaz duen edo zuen ikuspegiarekin bat etorritz.


Gure gizartean erlijio eta sinismen desberdinak bizi dira elkarrekin eta gure herrian bertan toki edo tenpluak dauzkate beren ekitaldi liturgikoak antolatzeko. Horren ildotik, Lasarte-Oriako Udalak erantzun egin behar dio geroz eta eske handiagoa duen behar sozial honi.

Aurreko guztia kontutan hartuta, Lasarte-Oriako Udal Batzarrak ondoko akordioa hartzen du:

1.- Lasarte-Oriako Udalak aitortzen du, omenaldi gisara edo agur modura, beren familiakoek, adiskideek, eta baita Lasarte-Oriako

gizarte zibila osatzen duten elkarteek edota entitateek ere jaiotzak, ezkontzak eta hileta moduko ospakizun zibilak gauzatzeko eskubidea.

2.- Eskubide hori gauzatu ahal izateko, Lasarte-Oriako Udalak Ordenantza bat sortuko du, zeinaren helburua izango da Lasarte-Orian ospakizun zibilak egin ahal izateko lokal eta espazioen erabilera eta hartarako baimena erregulatzea.

A handwritten signature in black ink, appearing to be 'L. Carral', written in a cursive style.A handwritten signature in black ink, appearing to be 'R. E.', written in a cursive style.

Lasarte-Orian, 2018ko ekainaren 5ean